



Armeniaren bakardade geopolitikoak



ASIER BLAS MENDOZA
EHU-KO IRAKASLEA

Armeniak urteak daramatza bere karta geopolitikoak, berez oso txarrak direnak, gaizki jokatzeko. Herrialdea Kaukaso hegoaldean dago zokoratuta itsasorako irteerarik gabe, ekonomia ahularekin eta eskualdeko lurralde eta populazio tamaina txikiarekin. Hori guztia gutxi balitz bezala, etsai historikoak diren turkiar herriek (Turkia eta Azerbaijan) inguratzen dute. Georgiarekin ere muga konpartitzen du, baina harremanak ez dira bereziki onak. Iranekin, aldiz, muga zatitxo bat partekatatu eta helburu ugari konpartitzeko aukerak ditu. Teheranek Armeniako inpendentzia eta lurralde batasuna segurtatu nahi ditu turkiar herrien lurreko konexioa oztopatzeko eta etxean dituen gehiengo azeriarreko lurraldeen irredentismoa apaltzeko. Baina armeniarrek ez dute behar bezainbeste ustiatu aliantza posible hori, Iran Mendebaldearen etsaia delako.

Erevanek Mendebaldearekin lerrotu nahi duen arren (NATOrekin eta Europako Batasunarekin lankidetzan esparruak ditu), errealismo politikoagatik errusiarren babesa bilatzen amaitu du ia beti. Moskuk Erevan aliatu ez leial gisa ikusten du, baina, Karabakh Garaiko gatazkari esker, Armeniak Errusiak gidatzen dituen Segurtasun Kolektiborako Itunaren Erakundean edo Eurasiako Batasun Ekonomikoan parte hartzen du.

Halere, 2018ko mobilizazioen ondoren Nikol Pashinyan lehen ministro

Armeniak
Mendebaldearekin
lerrotu nahi duen
arren, errealismo
politikoagatik
errusiarren babesa
bilatzen amaitu du
ia beti

izendatu ostean, gobernu berriak Mendebaldera hurbiltzeko eta Errusiatik urruntzeko zuen asmoak herrialdea irteerarik gabeko kale batean utzi du, horregatik, horri aurre egiteko Pashinyanek Azerbaijanen aurrean amore ematea erabaki du, eta publikoki adierazi du Armenia prest dagoela Karabakh Garaiko soberania azerbaijandarra onartzeko. Trukean Pashinyanek egun Azerbaijanek mehatxatzen dituen nazioarteko armeniar mugak segurtatu nahiko lituzke, nahiz eta ez dagoen batere garbi epe ertainean Azerbaijanek horrelako akordio bat errespetatuko lukeenik. Azerbaijanek Armeniako hegoaldea eskuratzeko interes berezia du, Nakhitxevan eskualdea gainerako Azerbaijanekin lotzeko eta, ondorioz, mundu turkiarra Istanbuletik Bakuraino lurrez konektatzeko. Hori

gerta ez dadin, Armeniako Gobernuaren esperantza inuzentea da Mendebaldearekin harremanak estutzea.

Bitartean, Bakun nazioarteko harremanen logika ondo ulertzen dute. Azerbaijan ikuspegi geopolitikotik Kaukasoko herrialde garrantzitsuenak da: lurralde zabalera eta populazio handienak ditu eta ekonomia sendoa da petrolio eta gasari esker. Geopolitikoki turkiarren aliatu sendoa da eta Mendebaldearekin, armeniarren kaltetan, harreman ekonomiko eta politiko oso onak ditu. Errusiak berak Azerbaijanekin negozio asko egiten ditu, aliatua ez, baina Moskurentzat bazkide fidagarria da, ez baititu egiten Armeniak egiten dituen hanka-sartze geopolitikoak, Mendebaldeari atsegin emateko.

Azerbaijan seguru sentitzen da bere aberastasunagatik, baina baita mapan non kokatuta dagoen ondo asimilatua duelako ere, Georgia eta Armenia ez bezala. Izan ere, azken horiek batzuetan aritzen dira Asian egon beharrean Europan egongo balira bezala. Baina errealitatea da Kaukasoko herrialde kristauak Asiako txoko batean daudela lekututa. Errealismo politikoak eskatzen die ekialdera begiratzea. Armeniaren kasuan, esportazioen ia erdia Errusiara doa eta heren bat Asiara. Horregatik, Erevani gustatu ala ez, Armeniako Estatuaren biziraupenak zerikusi handiagoa du ekialdera begiratzearekin, Mendebaldearekin baino. ●